

ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZAK ABIAN JARTZEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Lehena. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xede da hamasei pertsona kontratatzea “Auzoko Laguntzaileak”, eta “Udalerriko ardatz estrategikoak sustatzea” izeneko proiektuak aurrera eramateko, 2018. urterako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen tokiko enplegua sustatzeko ekintzetarako diru-laguntzen deialdiaren markoan, 2018ko ekainaren 13ko ebazpen bidez argitaratua.

Bigarrena. Kontratazioaren baldintzak

Oinarri hauen bidez, aldi baterako langileak kontratatzeko hautaketa prozesua arautzen da, honako lanpostu hauek baldintza hauetan bete ditzaten:

Programa: Auzoko Laguntzaileak

Lanpostua	Programaren koordinatzailea
Lanbide kodea	37131023; Giza garapenerako agenteak
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%85

Lanpostua	Auzoko Laguntzaileak
Lanbide kodea	59421076; Jagoleak, oro har
Kontratu kop.	4
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%87,50

Lanpostua	Arotza
Lanbide kodea	71311049; Arotzak oro har
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%72,50

Lanpostua	Peoi espezialista arotza
Lanbide kodea	71311049; Arotzak oro har
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%80

Lanpostua	Pintoreak
Lanbide kodea	72311035; Pintoreak edota papereztatzaileak
Kontratu kop.	4
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%72,50

Programa: "Udalerriko ardatz estrategikoak sustatzea"

Lanpostua	Merkataritza teknikaria
Lanbide kodea	41221011; Merkatariako administrariak oro har
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%80

Lanpostua	Turismo teknikaria
Lanbide kodea	26301011; Turismo-garapenerako agenteak
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%80

Lanpostua	Gazteriako teknikaria
Lanbide kodea	37151038; Animatzaile soziokulturalak
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%80

Lanpostua	Herritarren Partaidetzako teknikaria
Lanbide kodea	282; Soziologoak, historialariak eta gizarte zientzietako beste profesional batzuk
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%80

Lanpostua	Jarduera Fisikoko koordinatzailea
Lanbide kodea	37231077; Kiroleko monitoreak nahiz animatzaileak
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%70

Hirugarren. Funtzioak

Lanpostuen oinarriko funtzioak hauek dira:

Programa: Auzoko Laguntzaileak

Lanpostua: programaren koordinatzailea

- Kontratu aldiaren zehar garatu beharreko jarduerak eta lanak planifikatzea.
- Zerbitzuan esku hartzen duten auzoko laguntzaileen taldea koordinatzea.
- Kontratu aldiaren zehar garatutako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Gertakariak jaso, antolatu eta koordinatzea
- Jasotako gertakariak kudeatzea dagokien udal sailera tramitatzuz.
- Udalerriaren jardueraren ekonomikoa duten establezimendu eta lokalaren datu basea eguneratzea.

Lanpostua: Auzoko Laguntzaileak

- Bitartekaritza herritarrekin errazteko administrazioarekiko komunikazioa.
- Hondakinak kontrolatzeko neurri, bide zirkulazio arduratsu eta animaliak edukitzeari buruzko araudiaz informatzea herritarrei eta sentsibilizazio lana egitea.
- Herritarren kezak, iradokizunak eta abar jaso eta kudeatzea.

Lanpostua: Arotza

- Auzo laguntzaileen bitartez edo beste modu batzuetara (udaltzaingoa, herritarrak, bulego teknikoak...) antzeman diren egurrezko altzari hondatu edo gastatuak konpontzea:
 - o Lixatzea
 - o Osagaiak ordezkatzeko
 - o Eustea, torlojuak jartzea
 - o Bernizatzea

Lanpostua: Peoi espezialista

- Arotzari bere zereginetan laguntzea
- Bare kategoriari dagozkion eta bere lana behar bezala egiteko tresnak erabiltzea.

Lanpostua: Pintoreak

- Auzo laguntzaileen bitartez edo beste modu batzuetara (udaltzaingoa, herritarrak, bulego teknikoak...) antzeman diren pintura lanak:
 - o Barruko hormak luzitzea, saneatzea eta pintatzea
 - o Kanpoko hormak eta fatxadak pintatzea
 - o Bide-markak pintatzea

- Bankuak pintatzea

Lanpostua: Pintoreak

- Auzo laguntzaileen bitartez edo beste modu batzuetara (udaltzaingoa, herritarrak, bulego tekniko...) antzeman diren pintura lanak:
 - Barruko hormak luzitzea, saneatzea eta pintatzea
 - Kanpoko hormak eta fatxadak pintatzea
 - Bide-markak pintatzea
 - Bankuak pintatzea

Programa: “Udalerriko ardatz estrategikoak sustatzea”

Lanpostua: Merkataritza teknikaria

- Leioa Bidean banaketa-zerbitzurako denda berriak lortzea.
- Egindako eskariak eta ordu-tarteen kontrola
- Merkataritzari lotutako jarduerak dinamizatzea

Lanpostua: Turismo teknikaria

- Sistema turistikoaren elementuak identifikatzea
- Oraingo errealitate turistikoaren diagnosia
- Plan operatiboen bitartez lerro estrategikoak definitzea
- Beste udalerriekiko sinergiak identifikatzea lankidetzaren sareak lortzeko

Lanpostua: Gazteria teknikaria

- “Gaztedi Uribe Kosta 2017-2019” programaren barruko lanekoak ez diren praktiken programa koordinatzea eta dinamizatzea
- Programa zabaltzea
- Programaren xede izan daitezkeen gazteak bereganatzea
- Enpresa laguntzaileak bereganatzea
- Hautaketa-prozesuan laguntzea
- Egitasmoaren jarraipena eta ebaluazioa
- Gorabeherak konpontzea

Lanpostua: Herritarren Partaidetzako teknikaria

- Abian diren parte hartzeko udal prozesu aztertzea.
- Ekonomi Arloarekin batera lan egitea aurrekontu irekien inguruko parte hartzeko prozesua abian jartzen.
- Hezkuntza eta Partaidetza Arloarekin batera lan egitea parte hartzeko prozesuak dinamizatzen.

Lanpostua: Jarduera Fisikoko koordinatzailea

- Kanpoaldean egiten diren ariketa fisikoko jarduerak planifikatzea eta egitea.
- Zerbitzuko erabiltzaileen sasoi eta gaitasun fisikoa ebaluatzea eta ikuskatzea.
- Erabiltzaile bakoitzari dagozkion jarduera fisikoak gomendatzea, eta gorputz-mugimendu egokiak erakustea eta irakastea.
- Ariketa fisikoari buruzko zalantzak argitzea.
- Erabiltzailearekin harremana izatea eta jarduera egiteko motibatzea.

Laugarrena. Hautagaien baldintzak.

Onartua izateko, eta hala badagokio, hautaketa prozesuan parte hartzeko, honako hauek izango dira hautagai guztiek nahitaez bete beharreko baldintzak:

- a. Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko itunei jarraiki, langileen zirkulazio librea aplikatzen diren lurraldeetako nazionalitatea izatea.
- b. Europar Batasuneko estatu batetik herritarren ezkontideek ere hartu ahal izango duten parte, baldin eta legez banatuta ez badaude; era berean hartu ahal izango duten parte euren ondorengoek eta haien ezkontidearenekin, betiere, ezkontideak legez bananduta ez badaude, ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin hori gainditu arren, gurasoen kontura bizi badira.

- c. Europar Batasunetik kanpoko atzerritar nazionalitatea edukiz gero, bizileku-baimena eta lan-baimena izan behar ditu Espainian.
- d. Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunez betetzeko oztopo den gaixotasun edo akats fisikorik edota psikikorik ez izatea. Dena dela, minusbaliatuen gizarte integrazioari buruzko 13/1982 Legeak ezarritakoa ere bete beharko da.
- e. Diziplina espediente bidez Administrazio Publikoen zerbitzuetatik bazterturik ez egotea, eta funtzio publikorako ezgaitua ez egotea.
- f. Hautatuta gertatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoan Herri Jardunean Aritzeagatiko Bateraiezintasunei buruzko 32/1983 Legeak, abenduaren 20koak, eta hori garatzen duen legediak bateraezinezkotzat jotzen duen jarduerarik ez burutzea kargua hartzen duen egunean.
- g. Langabezian egotea eta Lanbiden inskribatuta egotea.
- h. Honako talderen baten barruan egotea:
 - Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzen duen titular edo onuraduna izatea
 - 35 urte edo gutxiago izatea
 - 45 urtetik gorako langabetua izatea (lan eskatzaile gisa inskribatuta, gutxienez, 6 hilabetez)
 - 55 urte baino gehiago izatea
 - iraupen luzeko langabetuak
 - gizarte bazterketa arriskuan daudenak, horren barruan egoera hauek sartzen direlarik: hemezortzi urtetik hogeita hamarrera bitarteko gazteak, adingabeak babesten dituzten erakundeetatik datozenak; droga-mendekotasun edo alkoholismo arazoak dauzkaten pertsonak, hain zuzen ere errehabilitatzen edo gizarteratzen ari direnak; baldintzapeko askatasuneko egoeran dauden pertsonak eta preso ohiak, baita espetxean egonik, beren espetxe-egoeragatik enplegu bat eskura dezaketena eta beren lan-harremana uztailearen 6ko 782/2001 Errege Dekretuaren 1. artikuluan araututako lan-harreman bereziaren aplikazio-eremuaren barruan ez duten presoak ere; zaintzapeko askatasuneko egoeran dauden pertsonak eta preso ohiak, bai eta preso adingabeak ere, adingabeen zigor-erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan daudenak, eta beren egoeragatik enplegu bat eskura dezaketena, eta beren lan-harremana uztailearen 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak onartutako 5/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren 53.4 artikulua adierazten duen lan-harreman berezien aplikazio-eremuaren barruan ez dutenak; Euskadiko Autonomia Erkidegoko agintari eskudunek baimendutako urgentziatzeko bidezko-zerbitzuetan ibili diren pertsonak; desgaituak; familia ardurapean ezkontidea edota 26 urtetik beherako seme-alabak dituztenak, edo nagusi desgaituak, edo adingabeak hartuta; eta genero indarkeriaren biktimak diren emakumeak.
- i. Aurreko deialdietan parte hartu ez izana, aukeran beste haugaitzarik ez bada. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu eta jakinaraziko du hori hala den.

Hautagaien aurreselekzioa egin ondoren, eta 2018ko ekainaren 13ko ebazpen bidez argitaratutako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen tokiko enplegua sustatzeko ekintzetarako diru-laguntzen deialdiak 2018. urterako ezarritako baldintzen arabera, lanpostuen %30 gorde beharko dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten titularrentzat edo onuradunentzat, %40 emakumeentzat, eta %15 55 urtetik gorakoentzat.

Deialdiaren baldintza-eskakizunak hautaketa-prozesu guztian eta kontratatzeko egunera arte bete beharrekoak dira.

Jarraian doazen lanpostuetarako, nahitaezko baldintza bereziak honako hauek dira:

Programa: Auzoko Laguntzaileak

Lanpostua: Programaren koordinatzailea

- Titulazio akademikoa: gradu erdiko lanbide heziketa

Lanpostua: Arotza

- 2. mailako arotz ofizial lanetan, Lanbide egiaztatutako 12 hilabeteko esperientzia, gutxienez.

Lanpostua: Peoi espezialista

- Gutxienez, Lanbidek egiaztatutako 12 hilabeteko esperientzia peoi espezialista lanetan.

Lanpostua: Pintorea

- 2. mailako pintore ofizial lanetan, Lanbidek egiaztatutako 12 hilabeteko esperientzia, gutxienez.

Programa: Udalerriko ardatz estrategikoak sustatzea

Lanpostua: Merkataritza teknikaria

- Titulazio akademikoa: Goi mailako lanbide heziketako zikloa administrazio eta kudeaketa edo merkataritza eta marketing arloan

Lanpostua: Turismo teknikaria

- Titulazio akademikoa: Goi mailako lanbide heziketako zikloa turismo arloan

Lanpostua: Gazteria teknikaria

- Titulazio akademikoa: Goi mailako lanbide heziketako zikloa animazio soziokulturalaren arloan

Lanpostua: Herritarren Partaidetzako teknikaria

- Titulazio akademikoa: Gizarte Zientzietako gradua: Politika Zientziak eta Kudeaketa Publikoa, Soziologia, Kudeaketa eta Administrazio Publikoa, Antropologia, eta Gizarte Hezkuntza.
- Ofimatika ezagutzak.
- Gutxienez, Lanbidek egiaztatutako 3 hilabeteko esperientzia parte hartzeko prozesuetan edo taldeko dinamiketan.

Lanpostua: Jarduera Fisikoetako instruktorea

- Titulazio akademikoa: Goi-Mailako Heziketa-Zikloak: Gizarte eta kirol animazio eta irakaskuntza goi- mailako teknikaria, Heziketa Fisikoko Irakasletza edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
- Astialdiko begiralea, Irakasgaitasun Ziurtagiria edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra.
- Euskara: 2. HE

Bosgarrena. Hautagaiak onartzea.

Behin oinarriak onartuta, ezarritako baldintza-eskakizunak betetzen dituzten hautagaitzak bidaltzeko eskatuko zaio LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

Behin hautagaitzak Lanbidetik jasota, hautaketa prozesuari hasiera emango zaio oinarri hauetan xehatzen den bezala.

Hautaketa prozesuari buruzko proben deialdiak eta Balorazio Batzordearen iragarki eta jakinarazpen guztiak Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko dira, baita udal web orrian ere (www.leioa.eu).

Seigarrena. Balorazio Batzordea.

Balorazio Batzordearen osaketa Udaletxeko iragarki taulan eta udal web orrian argitaratuko da oinarrien onarpenarekin batera, eta espezialitate-irizpideei erantzungo die. Batzordekideak Udalaren mende dauden langile funtzionarioen artean izendatuko dira.

Balorazio Batzordea ezin izango da osatu bere partaideen erdia baino gehiago bertaratu ezean, eta beti egon beharko dute bertan Lehendakariak eta Idazkariak. Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira eta, berdinketa gertatuz gero, Lehendakariaren lekuan diharduenak erabakiko du.

Komenigarria iritiz gero, Batzordeak probetan lantzen diren gaietan adituak direnen laguntza eska dezake.

Batzordekideek ezin izango dute esku hartu, eta hala jakinaraziko diote Presidenteari; hautagaiek ezetsi egin ahal izango dituzte epaimahaikideak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Batzordeak arauak ezartzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu, baita aurreikusi ez diren gaietan zer egin behar den ere.

Zazpigarrena. Hautatzeko prozedura.

Hautaketa prozesuak fase bakarra izango du, Lehiaketa Fasea. Balorazio Batzordeak egingo du hautaketa Lanbidek bidalitako hautagaien artean.

A) Lehiaketa Fasea:

Batzordeak honako aspektu hauek balioetsiko ditu programa bakoitzak dituen lanpostu desberdinen arabera. Horretarako, aintzat hartuko ditu ezaugarri sozioekonomiko jakin batzuk eta lan-merituak, Lanbidek bidalitako Curriculum Vitae guztietan eta hautagaiek bidalitako dokumentazioan jasoak, merituen egiaztatze eta irizpide sozioekonomikoen atalean zehazten den bezala.

Balioetsiko diren irizpide sozioekonomikoak:

- Deialdian ezartzen denaren arabera, ehuneko jakin bat kontratatzea eskatzen den kolektibo batekoa izatea: Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzen duen titularra edo onuraduna, emakumea, edo 55 urtetik gorakoa: 10 puntu kolektibo batekoa izatearren, eta gehienez, 30 puntu.

Irizpide horren baremazioa egite aldera, kolektibo horietako batekoa izateak ez du izan beharko sartzeko baldintza-eskakizuna, "hautagaien baldintzak" oinarriak dioenari jarraituz, kasu horretan, sartzeko baldintza-eskakizuntzat hartuko baitlitzateke eta ez balioesteko meritutzat.
- Seme-alabak ardurapean: ardurapean duen 26 urtetik beherako seme-alaba edo nagusi ezgaitu bakoitzeko bi puntu emango da, eta 10 puntu gehienez.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ez diren beste prestazio batzuk kobratzea: 5 puntu prestaziorik jasotzen ez bada, 2 puntu langabeziagatik subsidioa kobratzen bada eta puntu bat langabeziagatik prestazioa kobratzen bada.

Meritu profesionalak:

- Prestakuntza: lanpostuarekin lotutako prestakuntzan, 20 ordu bakoitzeko puntu 1. Gehienez, 5 puntu.
- Esperientzia: lanpostuko esperientzia egiaztatua, puntu bat hilabete gehigarri bakoitzeko. Gehienez, 15 puntu.
- Euskara: Baldintza ez den lanpostuetan honela balioetsiko da: B1 2 puntu, B2 4 puntu eta C1 6 puntu.

Merituak eta irizpide sozioekonomikoak egiaztatzea:

Irizpide sozioekonomikoak egiaztatu eta balioztatze honako dokumentazio hau da aintzat hartuko dena:

- Deialdian ezartzen den arabera, ehuneko jakin bat kontratatzea eskatzen den kolektibo batekoa izatea: Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzea edo onuraduna izatea, emakumea, edo 55 urtetik gorakoa. Datu horiek ofizios egiaztatuko dira, Lanbidek emandako datuen arabera.
- Seme-alabak ardurapean: familia liburua aurkeztuko da, eta dagokionean, ezgaitasun-ziurtagiria.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ez diren prestazioak kobratzea: datu horiek ofizios egiaztatuko dira Lanbidek emandako datuekin.

Lan-arloko merituen egiaztatzearen eta balioestearren, aintzat hartuko da Lanbidek igorritako Curriculum Vitae. Eguneratzeren bat behar izatekotan, Leioako Behargintzan edo Lanbideren edozein bulegotan egitea egongo da.

Zortzigarrena. Ariketak eta merezimenduak kalifikatzea, Batzordearen proposamena eta agiriak aurkeztea.

Deskribatutako lanpostuak betetzeko, hautagai bakoitzak guztira lortuko duen puntuazioa kalkulatu da, hautaketa prozesuaren bi faseetan lortutako puntuazioak batuta.

Puntuazioak batzean berdinketaren bat gertatzen baldin bada, irizpide sozioekonomikoetan punturik gehien lortu duenaren alde egingo da.

Merezimenduen, eta hala badagokio, ariketen kalifikazioa egin ondoren, Batzordeak iragarki-oholean argitaratuko ditu hautaketa prozesua gainditu duten hautagaien izenak, betiere, puntu gehien lortu duenetik hasita.

Bederatzigarrena. Agiriak aurkeztea.

Batzordearen akta argitaratu ostean, 10 eguneko epean, proposatutako hautagaiak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Medikuaren egiaztagiria, proposatutako eginkizunak normaltasunez gauzatzea galaraziko liokeen gaixotasun edo akats fisiko edota psikikorik ez duela adierazten duena. Hautagai elbarriek, aurrekoaz gain, dagozkien funtzioak betetzeko gai direla erakusten duen egiaztagiri bat ekarri beharko dute.
- b) Ondokoa ziurtatzen duen zinpeko adierazpena: diziplina espediente baten bidez edozein Administrazioetik baztertua edo Euskal Autonomia Erkidegoan eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua ez dagoela eta abenduaren 20ko 32/1983 Legean, eta hori garatzen duten legeetan, aurreikusten diren bateraezintasun ziorik ez duela.
- c) NANaren eta deialdian eskatutako tituluen fotokopiak, behar bezala konpulsatuta.

Hamargarrena. Kontratazio-proposamena.

Behin eskatutako baldintza guztiak egiaztatu ondoren, Batzordeak Alkateari bidaliko dio hautatutako pertsonak kontratatze proposamena, prozesua hau arautzen duen laguntzen deialdiarekin ados.

Hamaikagarrena. Gorabeherak.

Batzordeak sortzen diren zalantzak erabakitzeko ahalmena izango du eta, oinarri hauetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Lehiaketa ondo gauza dadin beharrezkoak diren erabakiak har ditzake.

Deialdiaren oinarrien eta Batzordearen jardueraren ondorioz sortzen diren administrazio-egintzen aurka egin ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auziak Arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legean xedaturiko kasuetan eta aurreikusitako era eta epeetan.